58. zk.
1997KO URRIA
GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN
FRANKEO ITUNDUA 48 / 27

# geu gasteiz

gasteizko euskaldunon aldizkaria



# euskal haizeak ARABAR MUSIKAN



## BEGIRALEAK

"guraso batzuk uste dute udalekuak barnetegiak direla"



## XXI. mendeko arkulariak

"ENERGIA EOLIKO HONI, EZ!"; SALBADA MENDIZERRAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA SORTU DA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ZEUEK IDAZLE

# GASTEIZKO ANTZERKI JAIALDIAZ MINTZO

*Antzerki jaialdian, "euskararen presentzia eta agerpena gehitu ez ezik, ahalik eta eleanitzago izanen zela", agindu zidan idazki baten bidez Udaleko kultura zinegotziak. Hitzak haizeak daramatzala dio erdal esaerak, paper-orri batean idatzi izanagatik, sinadura eta guzti.*

*Antzerki jaialdi honi, gero eta arrakastutsuagoa dena bestalde, NAZIOARTEKOA esaten diogu eta ez dakit zergatik. Eskertuko dugu frantsesezko eta ingelesezko antzezlanak ikusteko aukera, euskarazkoak eskertu ez ezik, eskatu egiten ditut ozenki, exigitzen ditut, lerro hauen bidez.*

*Zergatik izkutatu: haserre nago, oso. Iazko jaialdia trufa eta burla izan zen hiriko euskaldunekiko, aurtengoak izenik ere ez du.*

*Gasteizko neska-mutikoen artean, ez da ohikoa gaur egun euskaraz ez dakiena aurkitzea. Jaialdian, ordea, hamar antzezlatik bakarra eskaintzen zaie euskaraz. nork-nor diskriminatzen du, eh, Sanchez jauna? Egia esan, Udalak ez gaitu batere laguntzen, pairatzen dugun euskal-analfabetasunetik irteten!.*



*Utz ditzagun alde batera haur eta gazteak eta gutaz mintza gaitezen. Antzerki jaialdi hau euskaldunontzako topagune izateko esperantza izan dugu urtetan. Alferrik!*

*Helduok -agian ohitu garelako; baztertuak izaten ikasi dugulako- normaltzat jotzen dugu antzezlanak gaztelania hutsez ikustea eta entzutea (mintzaira begiez ere jaso daiteke!).*

*Ohiturak lege egin du. Baina euskaldunoi berez dagokiguna eskatzen hasteko garaia heldu zaigu. Bai, badakit zuetariko batek baino gehiagok segidan zera aurpegiratuko didala: "Horretarako ditugu zinegotziak; horretarako jasotzen dute soldata hilero. Gainera, Udaleko Kultura Saiala, PSOErengandik EAJren eskuetara igaro da. Erakuts dezatela, beraz, jeltzaleek euskararekin omen duten maitasuna.*

*Gogoeta honek ez du arrazoi falta...! Neuk, ordea, duela hogei urte kantari batek erabiltzen zituen argudio berberak erabiliko ditut erantzuteko:*
*"Beti ari naiz kexak gure zoritxarrez*
*inork salba gaitzan itxaroan.*
*noiz etorriko ote urrungo izarra,*
*salba gaitzan indarra?*
*Egin, egin lana, hori da bidea,*
*ez espero inoren laguntzarik,*
*inorena hutsa da.*
*Hauxe baita egia, benetan bakarra,*
*geurearen alde lan egizu eta aurrera".*

*Bitartean, aurtengo nazioarteko (?!) antzerki-jaialdi erdaldunaren prestaketan aritu den Sanchez jaunari, Udaletxetik joan den honetan, bi hitz baino ez: "Bidai on"*

**Iñigo Kastresana 'Euskaltzaleon Elkarguneko' kidea da**

GEU IDAZLE

# UDAKO OPORRAK

*Joan den egunean, mendian nengoela, lagun batek galdetu zidan: "Nola egon daiteke hainbeste jende sekula santan Gasteiztik ateratzen ez dena?"*

*Berarekin solasaldi bat eduki eta gero bakarrik gelditu nintzen eta lehengo galderari erantzun bat emateari ekin nion (saiatu, behintzat)*

*Nire betiko lagun kuadrila etorri zitzaidan burura. Koadrila arrunta da, denetarik aurkitu dezakezu: parranderoak, beti ikasten ari direnak, langileak, kirolariak... baina, bidaiaririk? Egia esateko oso gutxi. Eta menditik jeisten nintzen bitartean, saiatu nintzen lagunek Euskal Herritik ez ateratzeko eman ohi dizkidatzen erantzunak bilatzen: diru falta, ikasi beharra, lana erosotasuna...*

*Arrazoi garrantzitsuak dirudite, baina bidaiatzen saiatu garenok konturatu gara ez direla hain gainditu ezinak: dirua (udan, hemen geldituz gero diru mordo gastatzen duzu: Gasteizko festak, egunero hartzen duzun garagardo edo kafea... ); ikasi behar (nork ikasten du uztaialan?); lana (oporrak dira)...*

*Azkenean konturatu naiz benetako arrazoi bakarretakoa erosotasuna dela. Horregaitik beti saiatu naiz lagunak konbentzitzen: kanpora ateratzeko, beste kulturak ezagutzeko, jende eta pentsamendu ezberdinak ikusteko, leku batera ailegatu eta bere buruari galdetzeko: "Eta orain, zer demontre egingo dut?"...*

*Ez dakit, bada. Bidaiari "profesionalek" esan ohi dutenaren arabera: asko ikasten da bidaietan, etxean hobeto bizitzen ere ikasten omen da, eta -agian inportateagoa dena- baita kanpoan nola ikusten gaituzten ere. Ez da gutxi!*

**Edorta Sanz**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai • eritziz blai

- - -ZURRUMURRUAK

# HAU SOKA

*Udan oporrak omen dira. Lasaitasuna omen da nagusi. Udan odola garbitzen eta indarberritzen omen da. Haurrak jolasean blai omen dira... Esaera hutsak.*

*Udazkenean sartuak gara une honetan, oraindik udako soka hautsi gabe daramagu, batez ere Gasteizko Udalean, Aldundian eta zenbait alderditan.*

*Haurrak, gehienetan, tematiak izaten dira: "Hori ematen ez badidazu... ez dizut gehiago ezertan lagunduko..." Ohikoak dira horrelako eztabaidak eguneroko bizitzan.*



*Orain ordea, gizon handiak, jakintsuak, arduratsuak... bizarra azpitik mozten duten gizonak umetu zaizkigu: "Zuk bai, bada, nik ezetz..." alkate jaunak, bere asmoekin bat ez izatearren, zinegotzi "sozialistak"? Udal batzarretik kanpo utzi ditu. Zeinek edo nork arrazoia...? Azken finean herri xehea da galtzaile.*

*Bestalde, diputatu "sozialistek"? Ormazabal Aldun Nagusia aho bete hortzekin utzi dute bere eserlekuak hankaz gora bota eta Aldunditik alde egitean.*

*Baina "soka" ez da hemen bukatzen. Ezta gutxiago ere. UAn ere urak zikin mugitzen dira, lehendik garbiak ez baziren ere, eta trapu zaharrak aireatzen hasiak dira dagoeneko. Alderdi barnean harra bereak eta beste egiten ari da: Moskera, Pizarro, Garin... Ia ez dakite zer egin.*

*Uda joan da, baina ez dakit udazkena beroagoa ez datorkigun. Agintari edo politiko hauen eskuetan gauden bitartean geroaren argi gutxi agerida gure herrian.*

*Esaera zaharrak dioen bezala: "Bakoitzak, berak merezi duena izaten du". Hori egia baldin bada, herritarrok gara gatazka guzti honen errudun, geuk aukeratu baititugu. Beraz, kontuz aurrerantzean ea nor aukeratzen dugun, negua berotzeko ere kapazak baitira hauek. Ez aldago hoberik...? Auskalo!*

**Abel Enbeita**

HITZ ETA PITZ- - - - - -

# BERTAN GOXO



*Bidaiatzeak ez dizu onik ekarri. "Bertan goxo" bizi zinen garai batean. Ez zenuen mugitzeko premiarik, ez gogorik, ez nezesidaderik. "Bertan goxo" zinen.*

*Behin halako, ordea, atzerrira behar izan zenuen. Ditxosozko ingelesa ikasi nahi, seguru. Jakina, lingua franka ere bai eta. Eta halaxe urrundu zinen estrainekoz, duela urte batzuk. Ingelesa nola-hala ikasi zenigun. Bazter denetan konpontzeko lain. Italian zein Egipton, EEBBetan nahiz Australian, Mexikon edo Ingalaterran... estuasunetik onik atertzeko moduan beti, ingelesarekin.*

*Hizkuntza berriak, gainera, mundu bestelakoak ezagutzeko parada eskaini zizun. "Bertan goxo" hura multikolore egin zitzaizun. Ongi izan zintezkeen hala EAEn nola EEBBetan edo Mexikon. Ohiko Pirineo handiak baino ikusgarriago zitzaizkizun Europako Tontorrak. Gure baserri soroak baino ederrago Kantabriako zabaldo ezin berdeagoak... Fuera, hortaz, "bertan goxo" haren irakurketa kolore-bakarra.*

*Horrekin batera, barrena ere aztoratu zitzaizun. Beti bat entzuten lepazintzurretik gora egin zenuen. Inora jota ere, "langile saiatuak, finak, leialak, zintzoak, kristau onak" ziren beti ere euskaldunak. Egia zen axalean. Mamian, ordea, zenbat bizitza urratu, marmar, azpijoko, gezur, min, inbidia, zekenkeria eta tranpa... Hemen bezala.*

*Horrexek ernegatu zintuen. Hemen bezala zen han. Han bezala da hemen. Bestela, baina berdin. Hemen bezain "bertan goxo" han, han bezain "bertan goxo" hemen. Eta ondorio bakarra: han, hor eta hemen... bizi hau bizi beharra, jakinik "bertan goxo" zintezkeela nonahi... Bazoazela? EEBBetara? Australiara? Mexikora? Ez izan damurik. Nonahi zarela ere, biziko zara "bertan goxo". Hori ere ekarri dizu bidaiatzeak. Izan on, izan gaitz...*

**Miel Anjel Elustondo**

IZARRA TABERNA JATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



Gasteizko Paperdenda Berria



Arrlaga Euskalgintza S.L.
Denetariko papera saltzen 500 m².
Ikasmateriala
Opariak eta ofimatika
Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua
San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 1997ko urria

2
ERITZIZ BLAI
- iñigo kastresana, antzerki jaialdiaz mintzo
- edorta sanz, udako oporrak

3
BERTSOAK
- aitziber perez de karkamo, udako oporrak

4
KALEA MINTZO
tabernen ordutegi berria

5
ZURRUMURRUAK ETA HITZ ETA PITZ

6
EUSKALTASUNEAN LAGUN
- Josu Bravo

8
EKOLOGIA
Elgea-Salbada bizirik

12
KIROLAK
XXI. mendeko arkulariak

15
ARTEA
Katedral Berriko xurrutarriak

19
HAURRAK
Begirale izatea

22
MUSIKA
Euskal haizeak arabar musikan

24
HAURRAK (mostrongotxoak)
Jar ezazu tamagotchi 1 zure bizitzan


beren ahotan

## Ohetik ohera

J.M. Beltran

DOINUA:
AITA SEMEAK TABERNAN DAUDE

Betiko txirrin zizkolatsuak
erauntsi du une narea
Grisez zikina, egunsentiak
herdoil egin du airea.
Arropa jantzi, irentsi gabe
igongailuan kafea...
muzin eginez, lehian murgilduz
aurrean daukat kalea.

Betiko bide higuingarrian
zentzugabeko pausoak,
aurpegi ilunak ta kutsadura
xurgatzen ditu ahoak.
Erakuslehio distiratsuak
ttu egiten du osoa,
ernetzen dira laino ostean
lan egiteko zuloak

Betiko ola nazkagarrian
usteltzen zaigu zatarra,
hauts pozoitsua irikietan
ezpainetan aparra.
Atontzen dira gure ametsak
urdintzen da ostadarra.
Herrestan dator, gaitzerdi ene!
aisiaren deiadarra.

Betiko beta gordinkeria
hits hutsak eta alkohola,
gezurrak eta asmo kamutsak
gure etorkizun ikola.
Oihartzun agor eta ihartuan
gaude pozik beti irolak.
Alde egiten dut ilunarekin
berriro hor daukat etxola.

Egunsentia eta txirrina
aldean elekeria,
noraezean daramatzagu
ola eta miseria.
Hodeiertzeak du ezereza,
hezurrek horrokeria,
eta tik-tak-etik dago zintzilik
ohikeria, ohikeria.


ZUZENDARIA: Josu Kintas
ERREDAKZIOBURUA:
Xabier Zabaleta
ERREDAKZIO-BATZORDEA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Miel Anjel Elustondo, David Alvez, Edu Lopez de Luzuriaga, Iñigo Sarasola, Aitziber Iriondo
MAKETAZIOA:
Alex Badillo
KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:
PUBLIZITATEA:
Karlos Fdez. de Betoño
ARGAZKILARIAK:
Edorta Sanz, Joseba Unzalu,
KOLABORATZAILEAK:
Txipi Ormaetxea, Juan Jose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil
INPRIMATEGIA:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)


19
HAURRAK
Begiraleak:
"Borondatezko taldeetan beti beste giro bat sortzen da"




Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA
GEU Elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53
gasteizko euskaldunon aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# tabernak lehenago itxi

***Lege berriaren bidez murrizketak ezarri nahi izan dizkiete tabernetako ordutegiei. Erabakiak -espero zen bezala- polemika sortu du berehala. Gasteizen bertan ere bazterrak nahasi dabiltza. Alde Zaharreko tabernarien ordezkariek adierazitakoaren arabera, kolektibo horrek ez du legea beteko. Eta zuek? Zer deritzozue?***

## ZER DERITZOZUE ORDUTEGI BERRIARI? ZER DELA-ETA LEGE BERRIA?



cristobal balanzategi
JUBILATUA

*1.- Ez da ona hostalarientzat. Asteburuetan ezin da horrelako orduetan itxi . Orduantxe ateratzen da dirua.*

*2.- Auzokide batzuk nazkatuta omen daude. Baliteke arrazoia izatea.*



jose vadillo
IKASLEA

*1.- Goizegi da taberna bat ixteko. Gazte batentzat ordubiak ez dira etxera ailegatzeko ordua.*

*2.- Asko edaten da eta dezibelioek kexa bat baino gehiago sortu du dagoeneko.*



susana alvarez
IKASLEA

*1.- Oso gaizki, jendea gero eta beranduago ateratzen da. Ezin da jendearen "moda" aldatu.*

*2.- Zaratagatik izango da, bestela ez dut ulertzen. Lege txarra da bai jendearentzat bai tabernarientzat.*



carmen garin
ETXEKOANDREA

*1.- Berdin zait nahiz eta Kutxi kalean bizi, zarata nire kasuan ez da arazoa.*

*2.- Jendearen kexengatik. Tabernetako musika ozenegi egoten delako.*



saioa fdz de romalategi
IKASLEA

*1.- Gaizki. tabernak itxi arren jendeak kalean jarraituko du eta zarata berdintsua izango da.*

*2.- Auzokideen protestengatik. Dena den suposatzen dut beste zeozer ere egongo dela.*



iñigo mauel diaz
DELINIATZAILEA

*1.- Ez zait ondo iruditzen. Hamabietan afaltzen dugu eta ordubietan ixten badute, "pote" parea baino ezin izango dugu hartu.*

*2.- "Abstemioak" dira. Bestela zer dela-eta? Legea ez da inorentzat ona!*





GVREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

Argazki - Estudio
Erramun
Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006
Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

ZuhaiZti
PAPERDENDA
den-dena
birziklatua
OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxilleria, 6 behea • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15




eguneko menua

JANTZI ETA OPARIAK
Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ







Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

16 urteko mutil guapoa da. Gasteizen jaio eta bertan 11 urtez bizi izan zen. Orain Lukon bizi da, bere familiak han hartu baitzuen bizileku berria, baina Gasteizerako joera izugarria du. Lagunak eta koadrila Gasteizen ditu eta ikasketak ere bertan egiten ditu.

Ikasbideako Institutoan ari da eta DBHko hirugarren maila errepikatu egin behar du aurten. Ez omen da oso ikasle ona. "Gaizki nabil, ikastea ez dut batere gustoko".

Lau anaia dira eta bera da gazteena. Etxekoekin ez da ondoegi konpontzen baina "beraiekin moldatu behar dudanez, aguantatzea beste erremediorik ez dut". Etxean ez omen dute ia euskaraz egiten, urtebete zaharragoa den anaiarekin hala ere saiatzen da batzuetan; baina besteekin ez, "ez dakite eta".

Lagunekin elkartzea, musika entzutea eta parrandak egitea gustatzen zaio. Lagun koadrila ondoan zuela eta taberna bateko musika hotsen artean egin genuen elkarrizketa.

# Josu Bravo

"egunen batean abeslari izango naizela amets egiten"




**Horoskopoa jarraitzen al duzu?**

Batzuetan irakurtzen dut eta zera esaten diot neure buruari, "Joño, bete-betean asmatu dik". Bestetan, ordea, ez. "Hori ez duk egia" pentsatzen dut eta ez diot kasurik egiten.

**Nondik kanturako zaletasuna?**

Txiki-txikitaik datorkit kanturako afizioa. Nire anaiak gitarra bat zuen eta nik ere banuen neurea. Anaiak erakutsi zidan akordeak jotzen eta horrela sortu zitzaidan zaletasuna. Nik gainera, erritmoaren zentzu handia daukat eta jendeak kantatzen entzuten ninduenean zera esaten zidan: "oso ahots polita daukak mutil" eta kantatzera animatzen ninduten.

**Jende aurrean aritzen zara, ezta?**

Hiru-lau urte daramatzat jende aurrean kantatzen eta sei edo zazpi emanaldi egin ditut urte honetan.

**Nolako abestiak kantatzen dituzu?**

Bertsioak kantatzen ditut batez ere. Benito Lertxundi, Mikel Markez, Oskorri, Itoitz eta horrelakoak. Gazteleraz ere abesten dut bat edo beste, Celtas Cortos adibidez.

**Oraindik ez duzu ezer grabatu?**

Ez baina aurtengo Durangoko azokarako abesti batzuk prestatzen ari naiz. Azokan nire musika aurkezteko aukera izango dut.

**Zein nahiago aukeran: Bittor Aiepe, Mikel Markez edo Anari.**

Mikel Markez.

**Musika gogorra ala goxoa?**

Guztiak ditut gustoko.

**Abeslaririk gustokoena?**

Asko ditut gustokoak. Silvio Rodriguez, adibidez. Oso ahots ona du. Latzen taldeko abeslaria ere izugarri gustatzen zait, oso ona da. Baina bat aukeratzekotan, Silvio.

**Musikaz gain beste afiziorik?**

Ezdakit, behar bada...

**Atzean dagoen lagun batek bat-batean: "arrantza, jarri arrantza".**

Bai, pantanoan eta inguruetan arrantza egiten dut. Udan lau kilo eta erdiko luzio bat harrapatu nuen.

**Zer egin zenuen pieza horrekin?**

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ


ESKOA!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Nire amak konjelatu egin zuen eta oporretatik bueltatu ondoren saltsa berdean jarrita jan genuen.

**Zer egingo zenuke munduko denbora guzia izango bazenu?**

Maite dudan jendearekin, nire adiskideekin denbora pasa eta dibertitu.

**Zure ilusiorik handiena?**

Abeslari izatea eta 18 urte egiten ditudanean etxetik aldegin eta independientea izatea.

**Lagun ospetsurik baduzu?**

Bai, Betagarriko gitarrista.

**Oporrak non egin dituzu?**

15 egun Errioxan, Santo Domingo de la Calzadan, familiakoekin.

**Herrietako jaiak ala hirikoak?**

Herriaren edo hiriaren arabera. Lukon adibidez ez dago ezer eta Gasteizko jaiak ondo daude. Baina, Urbinakoak naihago ditut Gasteizkoak baino.

**Aitor dezakezun biziorik handiena?**

Emakumeak.

**Jarraitzailerik baduzu?**

Bai, batzuk bai.

**Kantaria izanda, ligatzeko aukera gehiago izango duzu?**

Ez, batere ez.

**Autograforik sinatu al duzu inoiz?**

Bai etorri izan zaizkit autografoak eskatzera.

**Zure bertuterik handiena?**

Guztiekin ondo moldatzen saiatzea. Lagunekin egotea gustatzen zait beti.

**Eta zure kezkarik handiena?**

Agian etxeko bizimodua.

**Zer nahi duzu nik galdetzea?**

Saiatuko zinateke orain abesti bat jotzen

**Joko zenuke abesti bat orain?**

Bai, jakina. Ni beti jotzeko prest nago.

✎ Xabier Zabaleta








Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 'Energia eoliko honi, ez'



**ENERGIA EOLIKOAREN hedapena betidanik mugimendu ekologistaren erronka izan da eta gizartearen onespen zabala ere jaso du energia iturri garbia delako. Egun, aldiz, Arabako Salbada Mendizerran Eusko Jaurlaritzak eraiki nahi duen zentral eoliko handiaren aurrean, talde ekologisten kritikak entzuten hasiak dira: eragin paisajistikoa, esku pribatuetan egotea eta beste energia iturri kutsatzaileak ordezkatuko ez dituelako.**

GAUZAK HORRELA, Salbada Mendizerraren aldeko Koordinadinakundea sortu da inguru honen defentsarako; bitartean, gizartearen zati handi batek begi onez ikusten du energia eolikoaren zuzperketa eragin paisajistikoak garrantzi eskasa duelakoan.

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak Elkarte Autonomoan ezarri nahi duen energia eolikoaren plangintzak kontzientzia ekologista duten askoren aurkakotasuna piztu du hiru arrazoirengatik: sortuko diren zentral eolikoak beste energia kutsatzaileak ordezkatuko ez dituztelako, parke eoliko hauek natura-gune garrantzitsutan kokatuko direlako eta, gainera, enpresa elektriko handien eskuetan egongo direlako.

Plangintzaren arabera, aerogeneradore batetik bestera ehun metrotako tartea egon behar du. Beraz,

ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA
GURIA
muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna
Matxaria, 2-7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

bost metroko zabalera duten kilometro anitzeko zementupistak irekiko dira mendi gailurretan. Honetaz gain, linea elektriko ugarik zeharkatuko dituzte mendi inguruak.

Euskal Elkarte Autonomoan energia eolikoa zabaltzeko planaren arabera, Salbada Mendizerrako gailurrean, hogeita hamar kilometrotan, 250 aerogeneradore jarriko lirateke. Bakoitzak 62 metroko altuera izango luke.

## Hiru hilabetez lanean

Koordinakunde honen esanetan, generadoreak batazbeste urtean hiru hilabetez besterik ez lirateke lanean arituko, gainontzeko hilabeteetan beren funtzionamendurako beharrezkoak zaizkien baldintzak betetzen ez direlako, hau da: 25 eta 90 kilometro orduko tarteko abiadura. Haizearen abiadura gutxieneko neurri honen azpitik izanez gero, ez lirateke mugituko eta gehienezko maila gaindituko balu, gelditu egin behar lirateke segurtasun neurriak direla eta.

geu gasteiz

"Plangintzaren arabera haize generadore batetik bestera 100 metro egon behar du"

geu gasteiz

Salbada Mendizerraren defentsarako plataformaren ustez, parke eolikoen kudeaketa esku pribatuetan egoteak (EAEko kasuan, Iberdro-

















Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



la, Gamesa Eólica eta BBV daude proiektuetan sartuta) ingurunearekiko kalteak areagotzea ekar lezake. Era honetan, gainera, mendietako fauna, flora eta naturaz gozatzeko ahalmena interes enpresarialen menpe egongo litzateke.

**'Eolikoa bai, baina holan ez'**

Talde ekologistak orokorrean eta Salbada Mendizerraren aldeko Koordinakundeak zehazki, ez daude energia eolikoaren kontra, ez eta gutxiago ere. Talde hauek energia mota garbi honen alde agertu dira beti baina ez edozein modutan egina; hau da, ez dute nahi energia eolikoa gutxi batzuen kontrolpean zentralizatuta egotea, multinazional edo monopolioen eskuetan, alegia. Euren ustez, energia honek deszentralizatua eta enpresa pribatu zein publiko txikien jabetzarekin funtzionatu behar luke. Energia mota honek bestalde, piskanaka-piskanaka energia nuklearra eta termikoa ordezkatuz joan beharko luke eta elektrizitate fakturaren merkatzea ere eragin behar luke. Parke eolikoak txikiak eta ingurugiroan eragin eskasa dutenak izan beharko lukete. Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko plangintzak ez omen dituen baldintzak, hain zuzen.

✎ Edu
Lpz. de Luzuriaga



# GEUrekin MENDIRA

**URRIAKO TXANGOA**

**- Okina -**
**- Kapildui tontorra (1.172 METRO) -**
**- Saseta -**
**- Okina -**

**Urriaren 26an**

**Irteera: Goizeko bederatzi t´erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean**
**Itzulera: 4rak, 5ak aldera**

**KOTXEZ JOANGO GARA**

**Zerbait gehiago jakin nahi ezkera, dei ezazue honako telefono honetara:**
**26 68 12 (BEGOÑA)**

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estaligirotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoa,...**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*
**GARMENDIA**
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ




**SANTi**
Harategia-urdaitegia

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER**
**AIZPEOLEA**
HARATEGIA




Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



**JOSEBA**
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ **25 66 89**
GASTEIZ

JAMON IBERICO BELLOTA
PRODUCTOS IBERICOS DE BELLOTA
AIZPEOLEA
Tfno: (945) 13 24 48
Florida, 19 VITORIA GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

EUSKO LABEL
KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL






kide

**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# irolak



**Futbolak** milaka milioiko zorrak eta irabaziak dituen bitartean, beste kirol batzuek diru apurrekin egin behar dute aurrera, gure hileko kirola kasu, arku-tiroa, alegia. Araban kirol ezezaguna dugu arku-tiroa ia guztiontzat. Halere, gurean 80 arkulari inguru jo eta ke dabiltza geziak jaurtikitzen. Ikusteko irrikan bazaudete apaiztegi zaharreko landetan duzue parada, hantxe aritzen baitira egunero.

# XXI. MENDEKO arkulariak



ARABAKO arku-tiro federazioko presidentea den Prudencio Collado orain hamar urte hasi zen geziak botatzen, "bizkarreko gaitzak jota, atzekaldeko hezurrak indartu behar nituela antzeman nuen orduan. Inork ez zidan ezer esan, baina arkulari batzuk ikusiz, gezia jaurtikitzeko ariketa hura nire sorbaldaren onurarako izan zitekeela pentsatu nuen. Horrela hasi nintzen honetan, eta egun ez daukat inolako arazorik bizkarrean", azaldu digu irribarretsu. Diru apurrak aipatzen genituen lehen, eta zer ote dira bestela 250.000 pezeta, hain zuzen ere, arku-tiro federazioaren aurrekontua ekimen guztiak aurrera eramateko. Aurrekontuak aurrekontu, Colladoren iritziz, "Tau-Baskonia edo Deportivo Alaves enpresak dira, eta ez zuten instituzioengandik dirulaguntzarik jaso behar, egia

MIKO
izozkiak

EVSKAL OKELA
LASAGABASTER
haraategia eta urdaitegia
Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

TABERNA
Upabi
San Antonio, 39

Bacalao Giraldo
Bacalao Giraldo
• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"
Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

esan, ez deritzot ondo dirulaguntzak banatzeko duten erizpideari".

### Atsedenik ez

Kontrakoa pentsa genezakeen arren, arku-tiro lehiaketa eta txapelketa ugari daude Araban zein kanpoan. Otsailetik abendura, urtarrilean atseden txikia hartuz, hemendik hara ibiltzen dira arkulariak. "Askotan kanpora irtetzen gara; noski, hemen ez dago dirua irabazterik, galdu baizik, eta materialak, bidaiak... geuk ordaindu behar ditugu. Goi mailako kirolariek egunero bost ordu gutxienez entrenatzen dituzten arren, arku-tiroak ez du sosik ematen. Baina oso gustura egiten dugu", argitu du arkulari arabarrak.

geu gasteiz

"Arabako Arku-tiro Federazioaren aurrekontua 250.000 pezetakoa da"

geu gasteiz



Arku-tiroan aritzeko modalitate ezberdinak ditugu: Lekuaren araberakoak (aretoan edo mendian), distantziaren araberakoak (18 metrotik 90ra), ibilbide gisa (basoetan edo zelaietan)...

Horren ildotik, Colladoren hitzak, "zorionez, apaiztegian areto batzuk ditugu. Azpiegitura handia behar dugu, eta hantxe gordetzen ditugu arkuak, geziak, dianak... Hain zuzen ere, horixe da oztopoa guretzat. Haurrak edo gazteak arku-tiroa atsegin duenean, arkua erosi behar du, eta horretarako, patrikeran 15.000 pezeta izan behar ditu, gutxienez".

Araban arkulari kopura handia ez den arren (80 kirolari), sei talde ditugu, Zuzenak, Mercedes, Arco Gasteiz, Arku Lagunak, Arco Caza

Araba eta Amurrioko Arku Kirol Taldea. Taldeek instalazioak ez dituztenez, Federaziokoetan aritzen dira. Hantxe, edo hobeto esanda, hementxe (apaiztegi zaharrean), gu ere hemen baikara, zelaia eta areto egokiak dauzkate. Geziak jaurtikitzeko irrikan bazaude, ez izan lotsatia, guri irakatsi ziguten, eta zuri ere irakasteko prest daude, haiengana hurbilduz gero, zu ere arkulari trebea izango zara.



✎ Ismael Diaz de Mendibil






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# BA AL zenekien?

## XXI. mendeko arkulariak

**ARKU-TIROZ** jaurtikitako gezi batek 240 kilometro orduko abiadura har dezakela, eta bota egin den lekutik kilometro t'erdira ager daitekeela (demagun, Ehari herritik Gasteizko erdialdera, Andre Mari Zuriaren plazara, alegia).

**EGUNERO** goi mailako arkulariek bost ordu ematen dituztela gutxienez geziak jaurtikitzen.

**ARABAN** kirol hori hil zorian zegoenean, arkulari bizkaitar batzuek, Gasteizen lehiaketa antolatuz, arku-tiroa berpiztu zutela.

**HEGOALDE** gizarte etxe berrian arku-tiroan aritzeko kantxa egin dutela (atzerapen ospetsuekin, eraikuntza bukatzea lortzen badute behintzat).

**ARKU GEHIENAK** Estatu Batuetan egiten direla. Hain zuzen ere, azken boladan dolarraren prezioak gora egin duenez, garestiagoak dira kirol dendetan.

**ASIAKO** hainbat herritan arku-tiroak futbola ordezkatzen du, eta lehen kirola dugu, esaterako, Korean.

**ARABAKO** arku-tiro federazioko kirolari batzuek Canadan eman dute uda ehiza eginez. Batzuentzat kirola dena, beste batzuentzat, hilketa baino ez da, baina arkulariak, geziak erabiliz, eta zaila den arren, hartzak bezalako animalia ederrak hiltzen saiatzen dira.

**BESTE KIROL** batzuekin alderatuz, Arabako arku-tiro federazioaren aurrekontua irrigarria da, 250.000 pezetakoa hain zuzen.

KOLABORAZIOA

# 97-98 denboraldia

**Oporrak pasa eta gero denboraldi berri bat hasi da. Denboraldia luzea eta gogorra izango da, 22 talde lehia gogorrean arituko dira eta. Alaves berriaren erreferentziak urriak dira: entrenatzaile berria, iazko jokalari bakan batzuk, Bigarren B Mailako fitxaketak eta Lehen Mailatik etorri diren hiru jokalari.**

*Joan den denboraldiko porrota ikusita, Alaveseko zuzendaritza taldeak estrategiaz aldatu du. Izen handiko jokalariak fitxatu beharrean, Gasteiz aldera jokalari gazteak ekartzea nahiago izan du, etorkizuneko apostua alegia.*

*Lehen aldaketa entrenatzailearen aulkian gertatu da. Jose Manuel Esnal "Mane" izango da aurten Deportivo Alaveseko entrenatzailea. Alde batetik, iazko Armando, Berruet, Karmona, Azkoitia, Pedro Riesco, Serrano, Codina eta Bermudez ditugu; eta bestetik, Gonzalo Antonek argi utzi du ez dituela Tito, Marcelo, Mestrovic, Ozegovic eta Pedro nahi. Azkenik, Manek iritziz aldatu, eta Pedro Alberto Mendizorrotzan geratzea erabaki du.*

*Mestrovicek Israeleko Tel-Aviv-eko Happoel taldean lekua aurkitu du; Marcelo Ingalaterrako Bigarren Mailako talde batean froga egiten ari da; Ozegovic, berriz, etxean da...*

*Talde zuri-urdinari Bigarren B Mailatik igotako jokalari gazteak erantsi zaizkio: Alex (Lemoa), Tellez (Pontevedra), Dacosta (Celta), Alfonso (Carabanchel), Canizares (Fuenlabrada), Ibon Begona (Athletic B) eta Angel Luis (Galder). Bestalde, Lehen Mailako futbolariak Leal (Merida), Pablo Gomez (Valladolid) eta Desio (Salamanca) dira. Horiekin batera, Mendizorrotzan hazitako Sibori euskalduna arituko da.*

**Raul Saez Rebe**

ALAVESZALEA ETA BAZKIDEA



***Gonzalo Antonek zuzentzen duen taldeak aintzakotzat hartzen ez badu ere, Alaveseko bazkide ugari euskaldunak ditugu. Antza, batzuek ez dakite oraindik, geure hizkuntza euskara dela, eta arauek diotenez, bi hizkuntz ditugula Euskal Herrian. Anton Mirandakoa dela eta, ez du araurik bete behar, ala?***

*Aurredenboraldian, Deportivo Alavesek emaitza onak lortu zituen, baina sailkapeneko beheko taldeen aurka eta joku onik egin gabe. Soilik Athleticen aurka aritu zen bikain, nahiz eta Errege Kopako norgehiagoka hura galdu.*

*Hala eta guztiz ere, Alaveszaleek taldearengan itxaropena dute, eta bazkide kopurua iazkoa baino txikiagoa izan arren, dagoeneko 6.000 baino gehiago du.*

*Eta joan den hilean, abuztuaren 31n, Deportivo Alavesek denboraldi berriari hasiera eman zion, eta ezin hobeto, gainera. Albacete gainditu zuen (5-1) Mendizorrotza futbol zelaian jokatutako partiduan. Gasteizko taldeak joku azkarra eta ona erakutsi zuen, eta zaletuok eskertu genuen. Serranok 4 gol egin zituen eta bostagarrena Azkoitiak. Hasiera ona izan da, jarraipena izan dezala espero dugu.*

EDAN • JANTEGIA
Oleaga
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Xabier
taberna
musika ona eta giro ezinhobea
Kutxileria 23



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



# HARPIDEDUNOI MEZUA !

Kaixo harpidedunok. dagoeneko eguneratu ditugu harpidetza datuak. Dena den okerren bat edo beste egotekotan dei iezaiguzu ahal bezain pronto konpondu dezagun gure telefonora 222153, eta ez bagaude utzi zure mezuan erantzungailuan.

**OHARRA: HARPIDETZA TXARTELA EGINA EZ BADUZU GARAIZ ZAUDE EGITEKO. HORRETARAKO 20. ORRIALDEAN AGERTZEN DEN KUPOIA BETE EZAZU, ETA BIDALIGUZU HELBIDE HONETARA:**

PEDRO ASUA 2 3. SOLAIRUA
01008 GASTEIZ






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

*• KATEDRAL BERRIKO -GARGOLEN- INGURUKO LIBURUA ARGITARATU BERRI DUTE •*

# XURRUTARRIAK

## altxor izkutua baina denon begibistan

**Inork gutxik gogoratu ditu orain arte Gasteizko Katedral Berriko xurrutarriak (gargolak). Gaur egun, zorionez, eta majisteritza ikasten zuten lau lagunen ikerketa-lan bati esker, harrizko irudi bitxi hauek badute liburu bat. Amelia Bartolomé, Mentxu Greño, Iosu Corredera eta Javier Ignacio Arnalen eskutik, eta Udaletxearen laguntzaz, hurbildu egin zaigu gaurko historiaren eta artearen zati bat. Liburua dendetan dago, xurrutarriak Katedral Berrian diraute.**



geu gasteiz

"Gasteizko xurrutarriak ez dira ezaxola pairatu behar izan duten bakarrak"

geu gasteiz

HIRIAREN erdialdean bizi dira, goi-goitik gure joan-etorri guztiak behatu egiten dituzte, kalitate bikaineko eskulturak dira eta hala eta guztiz ere inork gutxik eskaini die orain arte merezi duten arreta.

Katedral Berriarekin batera jaio ziren, eta eraikuntzak aurrera jo ahala xurrutarrien familia zabaldu egin zen. Hogeita hamasei anai-arreba dira, XX. mendean zehar sortutako harrizko hogeita-hamasei istorio.

### Baina, zer dira xurrutarriak?

Funtzionalak eta apaingarriak. Bi horiek dira gargolak definitzeko adjektibo aproposenak. Hurbildu zaitez Gasteizko Katedral Berrira eta jaso begiak. Euritakoa hartu eta kalera zaitez euria ari duenean, Florida aldera jo: hantxe egiaztatuko






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

duzu nola ahoa zabalik duten eskultura hauek teilatuetako ura hormetatik urrun jaurtikitzen duten. Horixe da xurrutarrien betebeharra. Lan arrunta? baliteke! Horregatik hain arreta gutxi?

**Beti ahaztuak.**

Oso ikerketa gutxi dago xurrutarrien inguruan. Balio ikonografiko handia dute, ordea. Interes eza ez dator bat gotiko estiloari eman zaion ohorezko arretarekin ere.

Gasteizkoak ez dira ezaxola pairatu behar izan duten bakarrak. Baita katedral gotiko ezagunek ere egoera berdina bizi behar izan dute.

Gure gargolak bukatu gabeko eliza bati daude loturik; Erdi Aroko arte-era baten zigilupean eraikiak izan dira eta horrek -egia esan- ez die batere lagundu anonimatutik ateratzen. Hala ere, inork ezin izango du esan Gasteizko Katedrak Berriko xurrutarriak kalitate gutxikoak direnik. Inork ezin izango die lapurtu zintzo gordetzen duten historiaren zati hori.

**Ibiltarien arreta eskatuz.**

Ez digute ahalegin handirik eskatzen. Zuzendu ezazu begirada zerurantz eta so egizue une batez .

Munstroz, animali fabulosoz eta deabruz osaturiko harrizko mundu bat ez al da iradokorra? Ez al dizkiozu minutu batzuk eskainiko giza antza dute hegaztiei edota arrain hegadunei? Ez al zaitu harrituko eraikuntz erlijioso batean gizon bat telefonoz hizketan aurkitzea? Eta abadea hiltzen ari diren sugeek... ez al dizute beldurrik emango?

Postaria, argazkilaria, kateak apurtzen dituen presoa, suhiltzailea, gizon-zuhaitza... Denek dute leku bat gure katedralean. Honek guztiak zure jakinmina pizten ez badu... zer behar duzu txunditzeko!?

**Harrizko historia.**

XX. mendearen hasieran hasi ziren Katedral Berriaren lanak. Gargolek zaindu zuten tenplua geldirik gertatu zen urteetan (1914-1946), eta familia osatu zuten eraiketaren bigarren eta azken fasera heldu zenean (1946-1969).

Lehenengo xurrutarriek gotikoaren erreferentzia izan zuten. Estraineko urteetan deabruak eta munstroak jaio ziren, bekatuei mesprezua eta birtuteei gorespena azalt-



geu gasteiz

"Xurrutarriek zintzo gordetzen dute gure herriko historiaren zati bat"

geu gasteiz

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Peru 8
22 60 50
-
Jose Mardones 8
26 35 40
-
Arana 30
25 24 00



EUSKARA
GALDUZ GERO,
AKABO
EUSKAL HERRIA
izena eman
aek



LANDABURU AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ!!!
GUATEMALA - 12, BEHEA TFNOAK: 12 09 50 / 909 42 88 36



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



zen dieten eskulturak, absidearen inguruan kokatzen direnak, hain zuzen.

Garai berekoak izan arren, oso esanahi ezberdina dute absidea eta gurutzeriaren artean topa ditzakegunek. Hor arteak, hilkorren munduan sartzen da. Oso bitxia da eraikuntz solemne batek bere kontulariari (Pedro Galdós Osabari, alegia) eta argazkilariari eskultura bana eskaintzea!

### 60. hamarkada. Franco eta Elizaren inaugurazioa.

Hamarkada honetan ahalik eta azkarren bukatu nai izan zuten Katedral Berria. Gehiegi luzatzen ari zen tenpluaren eraikuntza bukatu behar zuten. Francoren osasuna behera zetorren eta katedralak, enperadoreen garaian bezala, bere erregimenaren oroipena izan behar zuen.

Garai hartan Aurelio Rivas galiziarrak zertu behar izan zituen elizaren aurrekalde nagusia defendatuko zuten xurrutarriak, erregimen faxistaren alde burrukatu zutenak goraipatzen zituztenak eta "arerioak" irrigarri uzten zituztenak hain zuzen ere.

Biblia, historia eta propaganda politikoa nahastu egin ziren, beraz, 1963. eta1964. urteetan gauzatu ziren azken hamar eskultura horietan. Horiek bide eman behar ziguten "alde ona" non zegoen jakiteko: soldadu falangista birpiztuaren irudia edota arropa errepublikanoz jantzita dugun erdo-okertuta, adibidez.

Horrela bada,1969. urtean Franco Generalak hasiera eman ahal izan zion erabat gogoko zuen azken katedral gotikoari.

### Liburuaren idazleen gonbidapena.

Gasteizko Katedral Berriak bere 90. urtemuga ospatu berri du, Catedral Nueva de Vitoria-Gasteiz. GARGOLAS. izeneko liburuaren idazleek ondoko gonbidapena zabaltu nahi izan digute:

"Elizaren ondotik pasatzen zaretenean, pausua moteldu, altxa burua eta goza ezazue goitik hiriaren bilakaeraren lekuko diren eskulturekin.

Egileek aldarrikatu nahi izan zuten pentsaera ahaztu, aurriritziak alde batera utzi eta konzentra zaitezte mundu izugarri horretan. Beldurra baztertu, ahaztu erlijioaren iluntasuna ela elizaren ospea. Pentsa ezazue begi aurrean duzuna gizonak zertutakoa dela, irudimen handiko lagun askoren lana dela, umore onez beterik dauden eskulturak direla.

Ez ahaztu gargolek zaindu egiten dutela gure historiaren zati bat. Geldi zaitezte Katedra Berriaren ondoan, minutu batzuk eskaini eta, ziur egon!, ez zaizu damutuko!.

✎ Txabi Arnal Gil

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA KALEAN

GASTEIZKO
IRUBIDE
RAMIRO DE MAEZTU KALEAN
HERRIKO TABERNA
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurraz eginak
eta OSAGARRIAK
artisau lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu
Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz
Herreria 38, behea
25 25 03
AMAIUR
ALTZARIAK

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

### "borondatezko taldeetan beti beste giro bat sortzen da"

# Begiraleak

**BEGIRALEAK EDONON DAUDE, auzoko taldeetan, kanpamenduetan, hirian antolatzen diren ekitaldietan, ikastolako jantokietan... Borondate hutsez edo diru truke egiten den lana izan daiteke eta lan horren inguran mota guzitietako gertaerak sortzen dira. Begiraleen lanari buruz azkenaldian dexente hitz egin da eta zertxobait hobeto ezagutzea egoki iruditu zaigu. GEU GASTEIZ-ek lau begirale elkartu ditu eta beren gertaerak eta egoerak kontatu dizkigute.**



**Nola hasi zineten begiraleen munduan?**

**SILVIA:** Ume nintzenean eskaut talde batean sartuta nengoen. Gustatu egiten zitzaidan, bertan geratu eta begirale egin nintzen.

**BEA:** Talde batean negoenez gauza batzuetaz arduratzen hasi ginen eta kanpamenduetan haurren begirale hartu ninduten. Gero ikastaro bat egin genuen.

**UNAI:** Ni ere antzera. Txikitan joaten nintzen udaleku batzuetara eta gero roilo berdinarekin jarraitzeagatik... Aitzikia polita zen noizean behin bidaitxoak egiteko.

**IÑIGO:** Pentsatu nuen ideia polita zela. Beste pertsona batzuk nigatik gauza handiak egin zituzten umea nintzenean eta agian ordua zen nik ere zerbait emateko.

**Zer deritzozue auzoko taldeek egindako lanari?**

**S:** Positiboa dela talde batean aritzea. Umeak ezagutzen dituzu eta kanpamenduak eta horrelako gauzak hobeto egiten dira.

**I:** Polita da. Gauza txarretan eta onetan pentsatzen duzu. Ni hemen nago nahi dudalako eta gustora nagoelako.

**U:** Borondatezko taldeetan beti beste giro bat sortzen da, familiarragoa.

**B:** Nire taldean bazegoen jendea edozein gauza egiteko prest. Baina orain ez da lehen bezala, orain jendea begirale ikas-

jo eta ke
TXAPELARRI TABERNA
KUTXI kalean

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ONGI ETORRI
xurrut
KUTXI 103
GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Berrikoia

eire pub

GASTEIZKO IRLANDAR TABERNA
Florida, 3
(legebiltzarraren aurrean)



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



taroetara joaten da edonon lan egiteko eta kobratzeko.

**Nola ikusten duzue talde hauen egoera?**

**I**: Nik uste dut denborak aldatu egin direla eta taldeetan gero eta ume gutxiago dagoela. Talde oso antolatuetan egon daiteke errua, aktibitate haundiak egiten dituzten horietan, diru gehiago dutelako. Umeentzako interesgarriagoak dira eta agian umeak kentzen dituzte. Umeek edo gurasoek nahiago dute horrelako ekitalditara joatea besteetara baino.

**S**: Normalean orain joaten dira udalekuetara. Orain dela gutxi talde batean nengoen. Gauza txikiak egiten genituen eta kitto. Ez ziren gauza haundiak ezta ikusgarriak ere, ez zuten gizarte etxeetan edo udalekuetan egiten direnekin zer ikusirik. Haiek egin dezakete baina eskaut edo aisialdirako talde batek ezin du.

**Nola bultza daitezke talde horiek?**

**I**: Garrantzitsua izango litzateke instituzioetatik borondate gehiago jartzea talde hauetan, laguntzen bidez, beste medio batzuk emanez, eta ez gaur egun egiten duten bezala. Agian baztertu baino ez dituzte egiten. Hor daude betiko taldeak eta beraien udalekuak, haien kontra jartzen direnak umeak hartzeko. Horregatik indartu behar dira urte osoan zehar lan egiten duten taldeak eta ez ekintza puntual horiek bakarrik.

**B**: Ez dakit nola pontzentziatu. Urte osoan zehar zer dago? Eskaut taldeak edo aisialdirako taldeak. Gaur egun gauza pilo bat daude, gizarte etxeak, era guztietako ikastaroak, kirolak, patatin-patatan...

**Hala ere zuetako batzuk begirale lan egin duzue diruaren truke?**

**B**: Bai baina bolondresak ere izan gara. Gaur egun jende asko ez dago prest borondatezko lana egiteko.

**Nola ordaintzen dute begiraleek egiten duzuen lana?**

**U**: Gutxi kobratzen da. Udaleku batean hogeitalau ordu ematen duzu egunean. Ez dago gaizki, baina gehiago kobratu beharko litzateke. Gustora egiten den lan bat da hala ere.

**B**: Dena gutxi iruditzen zaigu. Agian egun batengatik kobratzen dena ez da hain gutxi baina hamabost egun jarraian lan egiten baduzu gutxi da.

**U**: Eta gainera udalekura joan baino lehen bilerak egin behar dira, prestatu zer egingo den, erosketak, eta azkenean askoz ordu gehiago dira.

**Begiraleen lan arloa ez dago oso araututa. Beharrezkoa ikusten al duzue akordio batzuetara heltzea?**

**B**: Orain arte begirale lanetan aritzen ginenok behar bada gehiago kobratzen genuen, baina azken finean ez geneukan ezer, ezta langabeziarik ere. Orain gutxiago kobratzen dugu.

**S**: Gutxieneko lansari bat egon beharko luke eta hortik atera kontratuak edo konbenioak.

**U**: Begirale bezala bizitzea zaila da. Uda partean lan pila daukazu, hilabete eta erdi


# HARPIDETZA TXARTELA

Izena-Abizenak: ______________________

Kalea: ____________ zkia:___ solairua: ____ Kodea: ________ Herria: ____________

Lanbidea: ____________ Jaiotze data: ____________ Telefonoa: ____________

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrontea: [ ][ ][ ][ ] entitatea [ ][ ][ ][ ] bulegoa [ ][ ] kontrol zkia [ ][ ][ ][ ][ ][ ][ ][ ][ ][ ] kontu zenbakia

**Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53**




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

jarraian, baina gero urtean zehar zaila da. Asteburuen batean edo arratsalde batzuetan ordu pare bat ateratzen zaizu baina ez daukazu hilaren bukaeran soldata maju bat.

**Nola dago euskararen egoera auzoko taldeetan?**

S: Begirale batzuk ez dakite euskaraz edo ikasten ari dira. Niretzat inportatea da. Ume batzuk ez dute hitz egin nahi, eskolako gai bat da haientzat eta kitto, etxean erdaraz hitz egiten dute.

B: Gainera batzuk ez dakite. Euskarazko udaleku batean suposatzen da ume guztiek euskara dakitela; gero hitz egitea ala ez beste gauza bat da; baina auzoko taldeetan denetatik sartzen da; batzuk badakite baina beste batzuk ez; orduan zer egiten duzu?

"Xurrutarriek zintzo gordetzen dute gure herriko historiaren zati bat"

geu gasteiz

U: Arazoa askotan gurasoengandik etortzen da; bidaltzen dituzte umeak udalekuetara euskara ikastera, baina udaleku bat ez da barnetegi bat, baizik eta euskara dakienak praktikatzeko edo euskaraz bizitzeko hamabost egun.



I: Taldeetan ez da euskara lantzen, agian begiraleek ez dutelako nahi, umeek ezagutzen ez dutelako, irtenbidea agian gauzak txikiak egitean datza baina oso zaila da.

**Zer aukera daukate ume euskaldunek?**

S: Kanpamenduetan saiatzen da euskaraz hitz egiten baina zaila da.

I: Kalean gero eta ume gehiagok euskara hitz egiten dute. Eta pixkanaka saiatzen ari dira gauzak egiten; baina euskara hutsezko kanpamenduak egitea hemen Gasteizen instituzioek ziurta dezakete.

U: Nik uste dut hobetuko dela, orain ume gehienak euskaraz ikasten dute eta hori nabaritu beharko da hemendik urte batzuetara.

**Begirale lana erraza al da?**

B: Azkenean denetarik jakin eta egin behar duzu. Zaila ez dakit. Nire ustez zer edo zer eduki behar duzu barnean begirale izateko. Nahiz eta ikastaroa egin ez da informatika ikastaro bat bezalakoa.

U: Titulua ateratzerakoan dena teorikoa da eta udaleku batera joan arte ez dakizu nondik nora doan kontua.

I: Lana berez ez da zaila. Garrantzia haundia duena begirale taldea da, ondo bazaude beste begiraleekin gauzak errazten dira.

**Ondo baloratuta al dago begirale lana?**

B: Auzoko talde batean bai, gurasoek kofidantza daukate zuregan eta ziurtasun batekin bidaltzen dituzte umeak, baina udalekuetan edo holako roiloetan ez dakit nik. Mobida hauetan badirudi gurasoek begirale baten ordez, zaintzale edo polizia bat nahi dutela eta ez da hori kontua.

I:Auzoko taldeetan desberdina da gurasoak ezagutzen dituzulako bileren bidez. Eta kanpamenduan izaten diren 'arazoak' ez dira salatzen udalekuetan gertatzen den bezala. Badakizu zuregan konfidantza dutela eta gauzak hitz egin daitezkeela.

✎ Karlos Fdz. de Betoño

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA
HOBEKI
ALTZARIAK ETA ATSEDENA
• koltxoiak • somierrak • kanapeak • ohe artikulatuak • latex • futton • ipar edredoiak • neurritara egindako armairuak •
Pio XII.a kalea, 7 behea
Tfnoa. 27 23 44
01004 VITORIA-GASTEIZ

MIKEL DELIKA
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
01002
28 28 39
Gasteiz

bar restaurante albéniz
Portal del Rey 9
GASTEIZ

NESKA BAT
behar da
haurrak zaintzeko
Arriaga auzoan.
☎ 17 38 09

 

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**EUSKARAK** gora egin du azken bi hamarkadatan. Musikaren mundura ere hori heldu behar zen lehenago edo beranduago. Hasi da nabaritzen dagoeneko. Euskal Herriko txoko guztietan musika taldeak sortzen ari dira. Asko eta asko dira euskaraz abesteko erabakia hartu dutenak.



# Euskal haizeak Arabako musikan

HERRIALDEAN ere ezin ginen atzean gelditu. Baditugu, beraz, gure artean hainbat adibide garbi. Lerro hauetan begiradatxo bat egin nahi izan diegu Araban euskaraz abesten duten taldeei. Baliteke baten bat falta izatea. Gure informazioaren arabera hamar talde aritzen da egun euskaraz. Horra hor, beraz, eskuratu ahal izan dugun informazioa.

Aritu batekin hasiko gara: Gari, Hertzainak taldeko partaide ohia. Orain dela 3 urte agertu zen berriro ere bakarka lanean. Gari beti izan da kantari polemikoa eta horretan dirau. Bere bigarren lana kalean du dagoeneko, "Eguzki berritan zaude" izenpean. Oso musika atsegina, rocka oinarria, eta soinu lasaia, hori bai, dena oso ondo integratua. Legazpiar hau aspalditik dago Gasteizen murgildurik. Horregatik Arabako kantarimultzo honetan sartu nahi izan dugu..



Bizkar Hezurra taldeak urteak daramatza musika munduan. Urte hauetan -orain arte- bi lan kaleratu dute. Goar, Mikel, Triku eta Kasti dira laukotearen partaideak. Aurten Durangoko Azokara euren

LA RioJANA
jatetxea
on egin!
EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

EGOA LIBURUDENDA
LIBURUAK · MUSIKA · MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

Tu Invernadero
zure lore sortak
ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

JATETXEA
HIRURAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

PLATÓ
TABERNA
☎ 22 65 64
GASTEIZ
Zaldiaran Plaza, 10



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

hirugarren lana eramateko asmoa dute, dirudienez.

Trikurekin (Bizkar hezurraren ahotsa) jarraituz, berak egin ditu produkzio-lanak Betagarri taldeak kaleratu duen konpaktoan. Mil a Gritos records-ekin atera dute lehen lana, oso alaia, ska erabiltzen dute oinarri gisa. Abestietan hizkuntz asko entzuteko parada dugu; hori baita lan honen ezaugarrietako bat. Egia esan hauxe izan da udako talderik garrantsitsuenetako bat.

Gasteiztik alde egin gabe beste talde bat aipatu nahi dizuegu: orain dela bi urte oso ezaguna egin zitzaigun Trikitixa Kontrairo taldea alegia. Diskoa kaleratu eta arrakasta handia lortu zuten; Aldaketak direla eta, pixka bat geldirik egon dira, baina badirudi laister kalera dezaketela bigarrena, Hala bedi!

geu gasteiz

"Badirudi Trikitixa Kontrairo...k bere bigarrena kalera dezakeela laster"

geu gasteiz



Amaitzeko, ezin utzi aipatu gabe oraingoz ezezagunak diren bi talde Lehena neska bikote galanta: Arrate eta Isabel, folk estiloan barnebarnetik hemengo eta Hegoamerikako musika nahasten aritzen direnak. Bigarrena Zigor laukotea duzue: soinu gogorrak (speed-metal) erabiltzen dituzte. Azpimarratu behar da laukote honen musikak duen indarra.

## Laudio

Laudion ere bada musikan aritzen denik. Hara goaz, bada, horien berri ematera. Bertan hiru talde aurkitu dugu. Lehen-lehenik Lur izenekoa, lau gaztek osatuta. Hard-Core egiten dute eta dagoeneko hainbat sari irabazi duze, tartean -aipagarriena esatearren- Euskadi gazteak antolatzen duen Maketa Txapelketan lortutako hirugarren postua.



Une Latzak taldea ez da berria: aspalditik dira ezagunak, nahiz eta azken denboraldian oso gutxi abestu duten zuzenean Eurengana jo eta garbi utzi digute: aurrera jarraitzeko asmoa dute.

Azkenik, Okerreko Bidea taldearen berri eman behar dizuegu: urte pare bat daramate elkarrekin indarra eta dibertsioa eskaintzen.

Badira beste talde batzuk inondik inora ahaztu ezin ditugunak nahiz eta euskara ez izan euren hizkuntza nagusia. Nola ahaztu, bada, S.A. taldea. Hainbat abesti euskaraz egin dute baina Oskorri beraren bertsioren bat ere. Orain dela gutxi, abesti berri bat kaleratu dute euskaraz: Pauso bat, Desobedientzia konpaktuan sartu dutena. Eta -nola ez- diska honen aipamen berezia egin nahi dugu. Aurten intsumiso egunerako kaleratu den diska horretan, zortzi talde gasteiztarrek hartu dute parte, horietako hiru euskaraz daude, tartean lehen aipatu ditugun Soziedad Alkoholika, Betagarri eta Trikitixa Kontrairo.

Hauek dira bildu dugun zerrendan agertzen diren taldeen izenak. Lehen ere esan dugu: baliteke baten bat ahaztu izana. Hala izanez gero mila barkamen. Zin egiten dizuegu hurrengo batean luzeago eta sakonago arituko garela. Bitartean zintzoak izan, erantzun diska hauek guztiak eta zeuon iritzia eman!

✎ Txabi Arnal Gil




IPARRA
taberna
Giro ezin hobea!
Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 GASTEIZ

JATETXEA
XIXILU
AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





**TXAKURRAK,** katuak, hamsterrak, perikitoak... etxeko animaliak dira. Batzuentzat maskotak dira, beste askorentzat lagunik maitagarrienak. Teknikaren bidetik asmakizun berriak heldu dira maskoten mundura: maskota birtualak. Ez dituzu etxetik atera behar bere eginbeharrak betzeko. Ez dute jaten, ez dute ezer apurtzen... Tamagotchi hauek gure animaliek beste zarata sortzen dute: zarata elektronikoa. Izango al dute Lopez de Guereñuko eskolako umeek tamagotchiren bat?.



# Jar ezazu TAMAGOTCHI I zure bizitzan

NIRETZAT tamagotchia tontakeria bat da, eta oso garestia: 3.000 pzta balio du, eta oso ardura haundia da. Zertarako nahi duzu?... kaka garbitzeko. Gainera klase erdian pitatzen badu.... Zertarako tamagotchia hamster bat eduki ahal baduzu?

**Ales 10 urte.**

NIRE tamagotchia txakur bat da, oso txakurpolita. Jateko hezurrak ematen dizkiet eta 109 kilo pisatzen du. Berarekin entretenitzen naiz. Gaixorik baldin badago ziztada bat eman eta sendatzen da.

**Cintia 10 urte.**

TAMAGOTCHIAK oso dibertigarriak dira. Kaka egiteko esnatzen zaitu. Horretarako botoi bat sakatu behar duzu, eta gero lokartzen da. Egunean dutxatu eta janaria eman behar diozu.

**Victor 10 urte**

NIK ez daukat tamagotchirik. Bat erosi nahi dut baina amak ez dit uzten. Nire ustez

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako... behar duzun guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA

TXUSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

tamagotchia etxean izatea beste animalia bat zaintzea da.

**Nerea 10 urte**

TAMAGOTCHI denbora pasatzekoa da, oso dibertigarria. Nik jateko gozokiak ematen dizkiot., 3 gozaltzeko, 4 bazkaltzeko eta 3 afaltzeko. Egun osoan aldean eramaten dut eta nirekin oheratzen dut.

**Albaro 10 urte.**

NIRE USTEZ tamagotchia jolas bat da. Nik egunero janaria ematen diot, batzuetan kaka edo txiza egiten du eta jakina!... garbitu behar dut. Egunean lau aldiz egiten du kaka, eta beste hainbeste txiza.. Eskolara natorrenean etxean uzten dut.

**Maider 9 urte.**

NIRE USTEZ ttamagotchia oso dibertigarraia da. Pertsona guztiei egun batzutan ama edo aita izatea gustatzen zaie. Egunero, lau plato arroz, gozokiak, eta hiru ur edalontzi ematen dizkiot. Asko guztatzen zait berarekin jolastea edo garbitzea.

**Zaloa 10 urte**

NIRE USTEZ tamagotchia ez da beharrezkoa eta depresioa sortzen du. Nik Tamagotchi bat erosi ordez animali bat erosiko nuke.

**Ibai 10 urte**

NIRE tamagotchiak Yerai du izena. Oso jatorra da baina batzuetan... Nire ama oparitu zidan eta jateko gozokiak ematen dizkiot.

**Ikargi 10 urte**

✎ Karlos Fdz de Betoño



# kanGEURoak




## GOIZEZ

| | |
|---|---|
| Nekane | 26 91 53 |
| Eduardo | 14 21 99 |
| Leire | 27 32 81 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Ainara | 24 04 42 |
| Ana | 26 65 95 |
| Eriete | 29 96 50 |

## ARRATSALDEZ

| | |
|---|---|
| Oihana | 25 30 35 |
| Aintzane | 27 09 64 |
| Iratxe | 24 51 81 |
| Ainara | 23 38 28 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Patrizia | 27 78 19 |
| Leire | 23 12 23 |
| Maider | 24 90 62 |

## GAUEZ

| | |
|---|---|
| Esther | 27 84 57 |
| Idoia | 24 47 79 |
| Lorena | 27 10 13 |
| Montse | 26 78 12 |
| Ainara | 23 38 28 |
| Txaro | 28 08 85 |
| Maider | 24 90 62 |
| Arrate | 25 64 01 |

## ASTEBURUAN

| | |
|---|---|
| Olatz | 25 61 20 |
| Montse | 26 78 12 |
| Arrate | 25 64 01 |
| Elena | 14 37 28 |
| Leire | 23 12 23 |
| Jose Angel | 27 62 14 |
| Saida | 26 58 05 |
| Idoia | 24 47 79 |
| Maider | 24 90 62 |
| Belen | 13 65 10 |
| Monika | 13 86 21 |
| Itziar | 13 86 21 |
| Maria Jesus | 13 54 35 |
| Estitxu | 25 99 60 |

KLASEAK
matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara
irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea
☎ 26 03 54



HegoAmerikako jantzirik ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




gidoia eta marrazkiak: Iñigo Sarasola

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA



# Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| SAILA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. |
|---|---|---|---|
| **UDALETXEA** | PRENTSA KABINETEA | Espainia plaza, z/g | 16 13 37 |
| | ZERBITZU OROKORRAK | Espainia plaza, z/g | 16 13 08 |
| | GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) | Espainia plaza, z/g | 16 13 44 |
| | GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA | Espainia plaza, z/g | 16 13 30 |
| | FUNTZIO PUBLIKOA | Espainia plaza, z/g | 16 11 41 |
| | IDAZKARITZA | Espainia plaza, z/g | 16 13 20 |
| | ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA | Espainia plaza, z/g | 16 11 88 |
| | ERROLDA | Espainia plaza, z/g | 16 11 06 |
| **BULEGO TEKNIKOAK** | BORONDATEZKO DIRU-BILKETA | Dato, 11 | 16 16 68 |
| | ZERGEN GESTIOA | Dato, 11 | 16 11 33 |
| | INGURUGIROA | Dato, 11 | 16 11 20 |
| **OSASUN ETA KONTSUMO SAILA** (DEMSAC) | KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB) | | 16 12 40 |
| **UDAL ARTXIBOA** | ARTXIBOA-ARGIBIDEAK | | 16 14 99 |
| **ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 88 |
| **VILLA SUSO JAUREGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 70 |
| **HEZKUNTZA SAILA (IME)** | ARGIBIDEAK | Fray Zacarías | 16 12 16 |
| **EKONOMI SUSTAPENA** | | Fray Zacarías | 16 12 11<br>16 13 48 |
| **GIZARTE ETXEAK** | JUDIMENDI | Urriak 12 kalea, z/g | 16 17 40 |
| | LANDATXO | Santa María kalea, 4 | 16 16 82 |
| | IPARRALDE | Zuberoa plaza, z/g | 16 17 60 |
| | ARIZNABARRA | ARIZNABARRA, 19 | 13 36 91 |
| **EUROPA GIZARTE-ETXEA** | ARGIBIDEAK (KULTURA) | | 16 12 31 |
| | BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA | | 16 12 61 |
| **KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO BULEGOA** | | | 16 36 91 |

VICTORIA HAEC EST QVAE VINCIT

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

ZERBITZV ELEBIDVNAK

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# gure kultura zaintzen

## ARABAKO MUSEOAK

**Arte Ederretako Museoa**
Fray Francisco pasealekua 8
01007 Gasteiz
Tel. 945-181918

**"Fournier" Karta Museoa**
Bendaña Jauregia, Cuchillería 54
01001 Gasteiz
Tel. 945-181920

**Arkeologi Museoa**
Correría 116
01001 Gasteiz
Tel. 945-181922

**Arma Museoa**
Fray Francisco pasealekua 3
01007 Gasteiz
Tel. 945-181925

**Natur Zientzietako Museoa**
Jesusen Zerbitzarien kalea 24
01001 Gasteiz
Tel. 945-181924

**La Hoyako Museoa**
01300 Biasteri
Tel. 945-181918

**Arabako Heraldika Museoa**
Mendozako Dorrea
01191 Mendoza

**Ekintzak**
Ikustaldi gidatuak
Ekintza didaktikoak

**Arabako Museoen ordutegia**
Asteartetik ostiralera: 10etatik 14etara
eta 16etatik 18.30etara
Larunbatetan: 10etatik 14etara
Igande eta jaiegunetan: 11etatik 14etara
Astelehenetan itxita

## HITZA KULTUR ETXEAN

**Urriaren egitaraua**

**Osteguna, 2**. Arratsaldeko 8etan
*Antzerki beltza. Negu gorriak-en kontzertua txontxongilon*

**Osteguna, 16**. Arratsaldeko 8etan
*Bertso saioa. Gasteizko Bertso Eskola*

**Ostirala, 24**. Arratsaldeko 4etan
*Xurrumurru emanaldia.*
*Txisteak, bertsoak eta kantu zaharrak*

**Osteguna, 30**. Arratsaldeko 8etan
*Bertso saioa. Unai Iturriaga*

*Liburutegia*
*Kontsulta Aretoa*
*Bideoteka*
*Mailegu Saila*

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

## ERAKUSKETA ARETOAK

**Amarica Aretoa**
*Marcote*
*Irailaren 20tik azaroaren 2ra*
Amarica Plaza 4
01005 Gasteiz
Tel. 945-181977

**Kultura Etxea**
*Momentos ciclistas*
*(Txirrindularitzako kliskadak)*
*Arabako Argazki Elkartea*
*Urriaren 1tik 15ra*
*Ruanda: amor en tiempos de cólera*
*(Argazki bilduma)*
*Javier Bauluz*
*Urriaren 20tik 31ra*
La Florida ibilbidea z/g
01005 Gasteiz
Tel. 945-181944

**Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia**
*John Duncan eta Daniel de Chenu.*
*Argazkiak*
*Urriaren 5ra*
Miguel Unamuno 1
01006 Gasteiz
Tel. 945-181926

**Diputación Foral de Alava**
Departamento de Cultura y Euskera

**Arabako Foru Aldundia**
Kultura eta Euskara Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa